

# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko ekainak 6 • 100 zkak



# 100.era heldu gara

# Den-dena daukagu kalkulaturik



- 1.700 z.kub.-tik behera:  
**3.275 pta.**
- 1.700 z.kub.-tik gora eta diesela:  
**4.900 pta.**

Eskulana eta BEZ barne, turbo eta multibalbuladun ibilgailuak ezik



- R-4, 5, 6, 7 eta 12:  
**4.850 pta.**
- R-9, 11, 21, 19, 5-5, Clio, Express eta Twingo:  
**6.335 pta.**
- Laguna, Espace, R-25:  
**7.825 pta.**

Eskulana eta BEZ barne



- 3. balazta argia:  
**4.745 pta.**

Eskulana eta BEZ barne



- **CONTINENTAL:**  
145/13: 7.513 pta.  
155/70/13: 8.773 pta.  
165/70/13: 10.968 pta.  
185/65/14: 12.131 pta.

- Deskontuak baita ere:  
**MICHELIN, GOOD YEAR**  
Eskulana eta BEZ barne



**MANTENIMENDU OSOA**

- 1.700 z.kub.-tik behera: **9.601 pta.**
- 1.700 z.kub.-tik gora eta diesela: **11.728 pta.**

\*turbo eta multibalbuladun ibilgailuak ezik



**Ekainaren 30era arteko eskaintzak**




**RENAULT**

## TALLERES MECA, S.A.

San Andres Auzoa, 8 - Tf.: 79 50 12

ARRASATE


### Mantenimendurako eskaintza ezin hobekak



# Zer duzu esateko Aretxagazetaren inguruan? Irakurtzen duzu? Zer gustatzen zaizu gehien? gutxien? Zer aldatuko zenuke?

*Ander Arietaleanizbeaskoa  
(Ikaslea)*

*Gainetik begirutzen dut eta zeozer interesgarria badago irakurtzen dut. Uste dut ondo dagoela gure herrirako eta ez dakit zer aldatuko nukeen.*



*Mikel Errasti  
(Langilea)*

*Badaukat irakurtzeko ohitura. Bide onetik doala uste dut. Lehengo hiru hilabetekaria luze egiten zen, orain hobeto.*

*Lanpostuen berri ematea ondo legoke.*



*Begoña Arenaza  
(Langilea)*

*Kontu zaharrak gustatzen zaizkit Aretxagazetatik gehien. Normalean dena irakurtzen dut eta ondo dagoela uste dut.*




*Matilde Bengoa  
(Langilea)*

*Dendan denbora izaten dudanean irakurtzen dut. Herriko berri ematen duenez asko gustatzen zait. Kontu zaharrak asko gustatzen zaizkit, gure denborako kontuak.*



*Jose Ignacio Arenaza  
(Langilea)*

*Bazkide naiz eta irakurtzen dut. M.J. Aretxaga asko gustatzen zait eta kanpoko pertsonaiak elkarriketatzen dituzuen hori gustatzen zait. Aretxabaletarako nahikoa dela uste dut.*



*Mari Karmen Gutierrez  
(Langilea)*

*Herriko berriak ekartzen ditu eta herrian zer ekinga egon behar diren informatzeko balio du. Lehen sukaldetako errezetak ekartzen zituenean ondo egoten zen.*



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**Gure eskerrik beroenak Aretxagazeta aurrera ateratzeko zuen laguntza eman duzuen guztioi eta aldizkarian publizitatea egiten duzuen guztioi ere.**

**Eskerrik asko!**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala, Euskaltegia, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94 Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin. **Portadako diseinua:** Mikel Arroiabe.



## DENONA DA KIROLA, GUZTIONA BEHARRA

Danok dakigu Aretxabaletan kirolak duen arrakasta. Ez dago ikusi baino zenbat jende biltzen den eskolarteko kirolean, UDak biltzen dituen kirol sail guztietan eta zer esanik ez mendizaletasunaren inguruan.

Baina badaude beste kirol batzuk ezezagunak egiten zaizkigunak: BOCCIA, SLALOM BOLEX JARRITA, SASKI BALOIA GURPILEZKO AULKIAN **premia berezidunentzat egokituak.**

Kurtzebarri eskolakook, SAIATU fundaziokoei eta ASPACEkoei esker, aukera izan genuen azaroan bertan orain arte ezezagunak egin zaizkigun kirol hauen exhibizio saio bat ikusteko. **Aldi berean eskeintza berezi bat jaso genuen Udal Elkartetik eta hori da atxabaltarroi jakinarazi nahi dizueguna:**

Eskeintza horri esker eskoletan dauden premia berezidun haurrek ere kirola egiteko aukera izango dute. A ZE SORPRESA!. Aurten Hector eskolarteko kirolean partaide: bere entrenatzailearekin astean bi saio egiten, bere lagunekin kirol berriak praktikatzen, berari egokitutako tresnekin jolasten, bailarako txapelketan parte hartzeko irrikitan lagun berriak ezagutzeko.....A ZELAKO SATISFAZIOA!

Aurten lehen urratsak ematen hasi bagara ere, datorren urteari begira zeintzuk dira asmoak?

Adibidez, eskoletako gorputz heziketako irakasleak prestatu eskola barruko kirolean ere benetako integrazioa eman dadin, proiektuari hasiera eman diotenak animatu lanean jarrai dezaten eta baita kirol guztietan egiten ari den bezala hauek ere gehiago kanporatu.

Guzti hau jakinda ZELAN ez gara animatuko lantalde honen asmoak babesten eta bultzatzen?

### Atxabaltarrok badugu honetan ere zereginik:

- Edozein kirolean premia berezidunen partaidetza bultzatu begirunea adieraziz.

- Udala animatu horrelako programak aurrera eramaten.

- Kirol elkarteak gehiago inplikatu: materialak erreztuz, irteeretara gonbidatuz, baliabideak bilatuz...

Guzti honen berri eman ondoren esanbeharririk ez dago inizatiba hau aurrera eramatea atxabaltar guztion esku dagoela.

Anima gaitetzen!

### KURTZEBARRI ESKOLA

**Zuzenketa:** Aurreko alean Loramendi Elkarteko sensibilizazio taldeak ateratako barazki eta fruiten kartelak marraztu zituena Mikel Garmendia zela jarri genuen. Izena aldatu genion, izan ere, **Iñaki Garmendia** da kartel hoiek margotu dituen.

**Berrikuntzak**

**Feli** MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA

Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA

**INDUSTRIALDEA  
MEDIKU-ZENTROA**

Luis Orruño  
Medikua  
Zaraia  
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea  
Pabelloi F-O b  
79 06 82  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**ENBOR**  
*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

**Artano  
Taberna**

Herriko Plaza  
ARETXABALETA



**TABERNA-BERRI  
JATETXEA**

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETA



*Markole zubia baino beherago beste egurrezko bat eraiki da oinezkoentzako bakarrik dena*

## Deba ibaia bideratzeko obrak aurrera doaz

Otsailean hasi ziren Deba ibaia bideratzeko obrak. Bideratze lanak Errotabarritik hasi eta kiroletxearen arteko zatian aurrera eramaten ari dira; tarte horretan ibaiak uholdeak izateko arriskua erakusten baitu.

Bideratzeko lanetan, Markole zubia eta Ibarako zubia bota egin dira. Markole zubia baino beherago beste bat eraiki da, egurrezkoa, oinezkoentzako bakarrik dena.

Ibarako zubia zegoen lekuan ere beste zubi berri bat eraikiko da. Azken honek 10 metroko zabalera izango du, erdian 7 metroko bidea trafikorako eta aldamenetan oinezkoentzako espaloia izango du. Zubi berri hau kiroletxera doazen autoentzako pasara izango da.

Azkenik, kiroletxera doan zubia bertan mantenduko da baina baranda berriztuko zaio.



*Ibarako zubia bota egin da eta bertan beste bat eraikiko da 10 metroko zabalera duena, autoentzako eta oinezkoentzako izango dena*

□ Ekainaren 22an **Elkarrik** antolatuta eta "Euskal Herrian bidezko bake-prozesu baterako" lemapean manifestazioa izango da Bilbon. Aretxabaletatik autobusak antolatu dira eta joan gura izan ezker Arlutz edo Artano tabernetan eman behar da izena. Irteera ordua arratsaldeko 4retan izango da Azbetik.

□ **Leizarra** musika eskolak datorren ikasturterako matrikulatzeko epea zabalik du ekainaren 3tik 21era bitartean. Izen ematea Musika Eskolako bulegoan egin daiteke, Otorara 27ko lokalean, arratsaldeko 5etatik 6etara.

□ **UDAK**, Aretxabaletako Kirol Elkarteak, datozen bi urtetarako zuzendaritza batzorde berria aukeratu behar du. Izenak aurkezteko epea zabalik dago dagoeneko eta ekainaren 21a baino lehenago izenak 10 postakutxatilara bialdu behar dira. Aukeraketan ondorengo prozesua jarraituko da: bi baino gehiago aurkeztuz gero batzar berezi batean erabakiko litzateke; bat aurkeztuz gero, zuzendaritza batzorde berrizat hartuko litzateke; inor aurkeztuko ez balitz, epe berri bat zabalduko litzateke.



**Amaia-Berri, S.L.**

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otorara, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 **ARETXABALETA**

**JOLAS  
LEKU**

Mitarte, 10  
Aretxabaleta

**IZOTZ  
Taberna**

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta



Joan den maiatzaren 25ean Aretxabaleako JARRAIK antolaturik omenaldia egin zitzaion estatuko espetxean atxiloturik dagoen Kepa Urria atxabaltarrari.

Burututako ekintza desberdinen artean kalejira bat egin zen. 100 bat lagunek parte hartu zuten bertan. Ondoren, bolatokiaren inguruan espreski margotutako muralaren aurrean Amnistiaren Aldeko Batzordekoek eta JARRAIko ordezkariak komunikatu aldarrikatzaile bana irakurri zuten.



Uztailean 3 astez luzatuko dira udaleku irekiak

## Udaleku irekiak

Aurtengo uztailean ere, Ortzadar Atsedean Taldearen eskutik 3tik 14 urtera bitarteko umeei udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute. Udalekuak 3 astetan zehar luzatuko dira, hasi uztailearen 1ean eta 19ra bitartean. Beste urte batzutan moduan goizez eta arratsaldez egingo dira ekintzak.

Izena emateko epea ekainaren 10etik 21era bitartekoa da. Honetarako Ortzadar Atsedean taldeak herriko plaza 1 zenbakian

duen lokalera joan beharko da eta bertan honako gauza hauek entregatu: izena emateko orria datu guztiekin; famili liburuko seme-alabaren orriaren fotokopia eta Euskadiko kutxan 3000 pezeta sartu denaren ziurtagiria.

Informazio gehiagorako deitu Ortzadarren lokalera 79 01 84 telefonora edo eta bertatik pasatu arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean (Herriko plaza 1 - 2. solairua).

### Andramaixetarako pegatina lehiaketa

Loramendi Elkarreak, Andramaixetan Euskeraren erabilera aldarrikatuko duen pegatina lehiaketa antolatu du.

Lehiaketa, pegatinan jartzeko esloganik onena bilatzeko da. Esloganak norberaren izen-abizenekin eta telefonoarekin ekainaren 30a baino lehenago bialdu beharko dira

Loramendi Elkartera (Basabe bidea 2) edo eta herriko tabernetan horretarako dauden buzoietan utzi.

Norbaitek marrazkiren bat gehituko balio, hori ere kontutan hartuko da. Saria 5000 pezetatakoa izango da eta uztailearen 5ean emango da jakitera Loramendiren lokalean.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

# BERBARI

## hitzarmenak urtebete

Joan zen apirilaren 25ean, herriko elkarte desberdinek BERBARI hitzarmena sinatu zutenetik, urtebete pasatu dela eta, Batzar Orokorra egin zen. Hitzarmena 26 taldek sinatu bazuten ere, 13 talde gerturatu ziren batzarrera: ALMEN K.E., U.D.A., ZARAIA, AKORDEOI ORKESTRA, OKILA, ARETXAGAZETA, LEIZARRA MUSIKA ESKOLA, ARLUTZ XAKE TALDEA, ORTZADAR, ARATZ, AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA, TALDE ANTIMILITARISTA eta H.B.

Batzar honetan hartutako zenbait erabaki, ondorengoak izan ziren:

Batzarrak 3 hilabetean behin izatea eta talde bakoitzetik euskera arduraduna edo taldeko partaide bat etortzea ezinbestekotzat jotzea.

Jarraipen zehatzagoa egitea.

Hartutako konpromezuak betetzen ez dituen taldeak bere burua berak kanporatuko duela.



Apirilean egin zen batzar orokorrera 26 taldetik 13 agertu ziren

Hitzarmenari seriotasun gehiago ematea hemendik aurrera. Kaleratu beharra eta herrian ezagutaraztea ere planteatu zen.

Datorren bilera uztailan egingo da eta bertan talde guztiak elkartzea espero da.

## Apotzako San Bernabe ermita



Datorren ekainaren 15ean eguerdiko 12,30etan Apotzako San Bernabe ermita inauguratuko da

Apotzako San Bernabe ermita, azken urteotan hain baztertua eta hondatua zegoena berriztua izan da. Apotza auzoko bizilagunak izan dira ermitaren egoera ikusita erabaki hau hartu eta aurrera eraman dutenak. Ermitak bere lehengo estruktura mantentzen du. Lau isurialdetako teilatuaz eta harlanduzko hormekin. Barruan San Bernaberen taila ikusi daiteke. Santuaren taila ez zegoenez berria egin behar izan dute. Ekainaren 15ean eguerdiko 12,30etan ermitaren inaugurazio ekitaldia egingo da.

## Haurren astea Kurtzebarri eskolan

Joan den astea Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako haurrek, jolasez, jokuz eta ekintza bereziz betetako astea izan dute. Ekintza desberdinen artean, Bizkai aldera eskursioa egin zuten, baita Ojala zelai eta Larrinora ere. Honez gain, eurak egindako eskulanak erakusgai jarri zituzten plazako arkupetan. Astea modu alai batean bukatzeko, Pello Añorga ipuin kontalaria izan zuten euren artean.

**MAITE**  
ileapaindegia

/// // // //

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05  
ARETXABAleta

**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAk

Euskadiko Kutxa  
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

**UNZUETA**  
JATETXEA eta LOGELAK

■ Parrila espezialitatea ■

NEKAZAL-TURISMOA

Zabola Z/G • Tfnoa: (945) 44 50 95  
ARAMAIO (ARABA)



**U**daberria eta uda izaten da bedarra moztu eta batzeko sasoi. Gure inguruko zelai askotan hasita daude bedarra batzeko lanak. Udako lanak negurako egin behar izaten dira; neguan ganadua etxe barruan egoten baita eta hauen elikagairako.

Gaur egun bedarra batzeko moduak aldatu egin dira. Lehenako eskuzko bedar batzetik, makinak hartu du orain lekua zelaietan. Traktoreari erantsitako makinek betetzen dituzte gaur egun belar batzerako lanak: sega-makinak, bolak egin eta plastifikatzeko makinak, e.a.

Hasiera baten base-rietan eskuz egiten zen bedar batzea. Orain aldean lanak asko luzatzen zirela gogoratzen du Juan Jesus Arientzako Peruena baserrikoak. *“Belarra segaz moztu, eguzkitan ontzen utzi eta kamaran gordetzen zen. Udan ekiten zizaion lan honi, San Juanak inguruan eta askotan irailan bukatzen zen”*.



Arientzako Peruena baserriko Juan Jesus Anduagak irabazi zuen VIII. Belar-silo txapelketako bola silo erakoa



Bolak egin eta plastifikatzeko makinak lekua hartu dio eskuz bedar batzeari

## Eskuz bedar batzetik bola silotara

Gerora hasi zen bedarra enfardatzen, ondoren siloak sortu ziren eta gaur egun silo bolak erabiltzen dira baserri askotan bedarra gordetzeko tresna moduan.

Siloek eta silo boleak bedarra berde moztu eta lehenago batzeko aukera eskaintzen dute. Behin batu eta hauetan gorde ondoren fermentatu egiten da bedarra.

### Bola siloa erosoagoa

Esandako moduan, bola gero eta gehiago erabiltzen da. Hasiera baten inbertsio handia egin behar bada ere gero oso praktikoa da. *“Makinariak asko balio du, garestia da eta bolak egiteko plastikoak ere igo egin du aurten. Baina makinak ondorengo lan guztia egiten du, oso eroso da”*. Azaltzen du Juan Jesusek. *“Egun batean lan dena egin daiteke, goizean moztu eta bedarra apur batean zikatzen utzi ondoren bildu”*.

Nekazaritza eta abeltzantzan ere makinak hartu du lekua. Baserriko lana ez da lehen bezainbesteko gogorra. Hala ta be, Juan Jesusek eta beste baserritar askok esango luketen moduan, baserriko lana orain ez da horren gogorra baina oso lotua izaten jarraitzen du.

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



### ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA




Zenbaki

### Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



LOGOPEDIA  
ZENTRUA

**ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE





Kaixo irakurleok,


Lehenik zorionak eta eskerrak Aretxagazeta 100. ale honetara hel-tzen lagundu duzuen guztioi.

Momentu hauetan sarri ospaki-zunetan murgiltzen gara eta txarto eginak ahazten ditugu. Nik, momentu hauek erreflexiorako egokiak direla uste dut. Zer egin dugu orain arte? Nora goaz? Bide onetik goaz? Zer hobetu behar dugu?

Normalean aldizkari bat sortzen denean 3 bide hartu ditzake. Urte batzutura ahuldu eta desagertu; indartu eta aldizkari ederra bihurtu edo kasu gehienetan, eta gurean ere gertatzen dena, erdibidekoa. 100. alea izateak ez du esan nahi dena egina dagoenik eta lasai egon gaitezkenik. Aretxagazeta hedatua dagoela, jarraipen bat baduela adierazten du eta hemendik aurrera gure lana, denon lana indartu eta sendotzearena izango da.

1995. urte hasieran, aurreko zuzendaritza batzordea ordezkatu genuenean, aldizkariaren neurria aldatu berria zen, formato txikitik gaur egunekora hain zuzen ere. Aurreko urteetan gorabehera ugari izan zituen Aretxagazetak, jende aldaketa ugari, diru arazoak eta abar.

Gure asmoa gorabehera hoiekin bukatzea eta



aldizkariari finkotasun bat ematea izan da. Guk ere maketazioarekin eta argazkiekin arazo dexente genituela eta 95eko irailean itxura aldatu genion aldizkariari eta hortik aurrera barrukoa hobetzen saiatu gara. Gure ustez hobekuntza batzuk lortu ditugu baina argi dago oraindik ere bide luzea dugula jorratzeko.

Gerora begira baditugu desafio konkretu batzuk. Aldizkariaren aldikotasuna Aretxabaletako errealitatearekin bat datorrela uste dugu eta ez dugu aldatzeko asmorik. Datorren urte hasieran aldizkariaren azala koloretan ateratzeko konpromezua hartu dugu. Kolaboratzaileekin ere harremanak estutzeko beharra ikusten dugu, beraien lana beharrezkoa dugu eta produktu hobea eta landuagoa eskaintzeko. Eta jakina, lan honetarako norbait prest badago guk gustora hartuko dugu.

Guzti honek helburu bakar bat du, Aretxagazeta sendago bat lortzea bai kantitate eta batez ere kalitate aldetik eta era berean, Aretxabaletako hurbileko historiaren erreferentzia ere bilakatu.

**Josu Urkia**  
Aretxagazetako zuzendaria

## Zuk ere Aretxagazetan zeozer idatzi gura baduzu...

Ekitaldiren bat anuntziatu gura baduzu edo eta idaztea, marraztea edo argazkiak egitea gustoko baduzu, Aretxagazetan baduzu lekurik, aldizkari zabala izatea gura du eta. Horretarako, deitu 79 01 05 telefonora edo eta kultur etxera etorri, hortxe dago eta Aretxagazetako bulegoa. Esan beharrezkoa idatziz ere bialdu dezakezu, 151 postakutxatilara edo eta kultur etxean dagoen buzoian utziz. Zenbat eta partaide gehiago hobe, ezta? Beraz, animo eta deitu lasai!

# Atzera begiratzuz...

Herriko informazioa eskaini eta euskera bultzatzeko helburuz sortu zenetik hamabostean behin hor izaten duzue Aretxagazeta zuein artean.

Atzera begiratzuz badugu, 1989. urteko martxoaren 21ean atera zen Aretxagazeta izenez lehenengo zenbakia. Bere neurri haundiagatik Aretxa- "gazeta" izena jarri zitzaion. Hiruhilabetekaria zen, 20-24 orrialde zituen. Bederatzi zenbaki kaleratu ziren, 1991ko otsailen azkena. Ondoren, urtebeteko etenalditxo bat izan zuen. Baina herriko lagun talde bat ez zen atzera begira gelditu eta prentsa lokalak zuen garrantziaz oharturik osterara ere lanari ekitea pentsatu zuten.

Horrela, 1992. urteko martxoan kaleratu zen Aretxagazeta tamainu txikiko lehenengo zenbakia, hamabostekaria izango zena. Lehenengo zenbaki hark 12 orrialde zituen baina bigarren alea atera orduko 16 orrialdetara pasatu zen.

Hasiera bateko zailtasunak ez ziren gutxi izan. Proiektu berria zen eta ordu asko sartu beharra zegoen 12 orrialde haiek ateratzeko. Aretxagazetak estruktura berria zuen, langile bat kontratatu zen aldizkaria ateratzeko. Honez gain, 2 urtetik behin aldatuko zen batzorde bat sortu zen.

Ordutik 4 urte pasatu dira eta 100. alera iritsi gara. Tarte horretan beste aldaketa nabarmen bat ere izan du aldizkariak. 1995. urteko urtarrilean tamainaz haunditu zen. Aldaketa honen arrazoi garrantzitsuena ekonomikoa izan zen, publizitatea lortzeko zailtasunak ala eskatuta.

100. zenbakira iristeko, lagun askoren partaidetza beharrezkoa izan da Aretxagazetaren bizitzan. Hauen lanari esker herriko aldizkaria aurrera ateratzea lortu da. Aurrerantzean ere, Aretxagazetak herrikoia izaten jarrai dezan, herritarron partaidetza eta laguntza beharrezkoak izango dira.



**Sortu:** 1989ko martxoan  
**Bukatu:** 1991ko otsaila  
**Aldikotasuna:** Hiruhilabetekaria  
**Zenbat ale argitaratu:** 9  
**Orrialde kopurua:** 20-24  
**Argitaratzailea:** Andarto kolektiboa.

**Sortu:** 1992ko martxoan  
**Bukatu:** 1994ko abendua  
**Aldikotasuna:** Hamabostekaria  
**Zenbat ale argitaratu:** 66  
**Orrialde kopurua:** 12-20  
**Argitaratzailea:** Aretxagazeta kultur elkarte.

**Sortu:** 1995eko urtarrila  
**Aldikotasuna:** Hamabostekaria  
**Zenbat ale argitaratu:** 67tik 100era.  
**Orrialde kopurua:** 20-24  
**Argitaratzailea:** Aretxagazeta kultur elkarte.

**SAGASTA**

**ELEKTRIZITATEA**

Elektragarailuak  
 Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14  
 Tfnoa: 79 16 10



**MAPFRE**

Aseguroak

Errekararren, 3  
 Tfnoa: 77 11 76

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
 ARETXABALETA

**JOSU**

**HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
 kroasantegia  
 Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

1- Zer gogoratzen duzu Aretxagazetan ibilitako sasaitik?

2.- Orain zelan ikusten duzu aldizkaria?

3.- Aurrera begira zein bide jarraitu beharko luke?



**Inma Migel**

*Aretxagazeta formato haundiko  
sortzaileetarikoa bat*

1.- Oso garai gogorra izan zen. Ordenadorerik ez genuen eta makinaz idatzi behar izaten genuen aldizkaria. Ordu asko sartzen genituen eta aldizkaria ez zen kalitatezkoa, ez zen ikusten egindako lana. Honez gain, kaleko kritikak entzutea oso gogorra izaten zen, euskeraz akats asko zegoela, ez zuela benetan esandakoa jartzen, e.a.

Itzulpen asko egiten ziren eta honek euskeraren kalitatea jaisten zuen.

Hiruhilabetekaria zenez ez zegoen oraingo moduko presarik, lasaia ibiltzen ginen.


2.- Nik Aretxagazeta gustora irakurtzen dut eta nire garaiaz konparatuz gaurkotasan haundia lortu du orain hamabostekaria izanik. Bestetik, argazkien kalitatea hobea da. Irakurtzeko erraza dela uste dut eta edozeinek irakurtzeko modukoa.

3.- Portada ez da oso erakargarria eta nik koloretako portada jarriko nuke. Honez gain, aurrera begira bestelako komunikabideak sortu beharko lirakeela uste dut, irratia eta telebista esaterako.

1.- Hasierako urte haietan Aretxagazetak aurrera jarraitu zezan estruktura bat sortzea lan garrantzitsua izan zen niretzat. Elkarte pribatu bat sortu genuen, bere organigrama eta estatutoekin. Nik banuen lehenagotik ere mundu horretan esperientzia eta aurrerantzean Aretxagazetari kontsolidatzen lagunduko zion oinarri hori sortzea beharrezkoa izan zen.

2.- Nik uste dut momentu honetan Aretxagazeta estadio on batera iritsi dela. Estruktura aldetik finkatuta dagoela ikusten da. Hasiera baten amets egiten genuen lekura iritsi da, haundiagoa da eta propaganda aldetik ere finkatuagoa dago.

3.- Hemendik urte batzutura dokumentu historiko garrantzitsua izango da Aretxagazeta eta balore hori azpimarratzekoa eta lantzekoa da, adibidez herriko baserrien inguruko arlo bat ipiniz. Idatziak balio izugarria du, baina informazioa banatzeko beste aukera batzuk ere badaude, irratia eta telebista hain zuzen ere. Prisarik ez dago, baina berrien gaurkotasuna emateko osagai garrantzitsua izango litzateke Aretxagazetarentzat herri irratia eta telebista bat.



**Jokin Antxia**

*Aretxagazetako lehen zuzendaria  
(Formato txikia)*



**Agurtzane Elkoro**

*Aretxagazetako lehen langilea*

1.- Oroitzapen ona gelditu zait Aretxagazetan ibilitako sasaitik. Ia bi urte egin nituen bertan lanean eta nire lehen lanpostua izan zen. Ordu pilo bat sartzen nituen, baina ez nengoen bakarrik. Hasieran jende askoren laguntza jaso nuen; orduko lantaldearen lana baloratzekoa da.

Ordenadore txiki batean egiten genuen aldizkaria eta inprimitzeko Arrasate Pressera joaten ginen, ez genuen inpresorarik eta.

Hasieran jendeari kostatu egiten zitzaion aldizkarian partehartzea, ez zegoen ohituta eta.

2.- Garbi dago urtetik urtera aldizkaria kontsolidatzen doana. Hamabostean behin jendea zain egoten da aldizkaria hartzeko.

3.- Nik uste dut herriko idazkeran gehiago idatzi beharko litzatekeela, hor dugu eta idazkera liburuxoa.

Aurrera begira Aretxagazetak duen interesa mantentzea garrantzitsua da. Horretarako herriko arlo desberdinak ikutu beharko lirakeke, herriko jende desberdinengana helduaz; Aretxabaletan kanpotar asko dago eta askotan ez gara horiengana hurbiltzen.

1.- Urte bete egun erdiz lan egiten pasa nuen Aretxagazetan. Kazetari lanetan nire lehen esperientzia formala izan zen. Hasieran ez nekien zer aurkitu nuen. Ordurako Agurtzane Elkoro zegoen lanean eta berarekin batera abuztuan hasi nintzen. Esperientzia ona izan zen. Lan giro polita zegoen. Batzutan dena dela, larritasunak pasatzen genituen. Izan ere, ordenadore txiki batean denetarik egin behar genuen: publizitatea, maketazioa, testua... Hala ere, sekula huts egin barik egunerako kaleratzen zen eta horrek jakina, poztasuna ematen zuen.

2.- Aretxagazeta baloratzeko esan eta erantzun samurrena ondo dagoela esatea izango litzateke. Baina dagoeneko prentsa idatzian hiru urteko esperientzia dut eta balorazio sakonagoa egiten ausartu behar naiz. Aretxagazeta sortu zenean bere ezaugarrietariko bat tamainu txikia zen. Baina aldizkari batek denborarekin eboluzionatzen jakin behar du eta beharbada hori falta izan zaio Aretxagazetari. Tamainu aldatetik aldizkaria estandarizatu egin da, bere ezaugarrietariko bat galduz. Dena dela ez da ahaztu behar beste aldizkari batzukon konparatuz gero, ez duela ez diru, ez langile kopuru, ezta azpiegitura egokirik ere.

3.- Erronka haundiena itxura aldaketan dago: argazkiak, azala, maketazioa. Azala aldizkariaren aurpegia da, horrek mimoa behar du. Azken finean, zer lortu nahi dugun argi izatea da garrantzitsua, horren arabera beharrezko aldaketak egiteko.



**Itxaro Zubillaga**

*Aretxagazetako langilea  
izandakoa*

# Zelan egiten da Aretxagazeta?

Hamabostean behin, eguaz-tenetan han aurkitzen dut Aretxagazeta nire buzoian. Normalean behintzat ez du hutsik egiten. Baina behin eta berriz nire buruari egin diodan galdera da honako hau: zein prozesu jarraitzen ete du Aretxagazetak nire etxeko buzoira heldu artean?

Azkenik argitu dut nire jakinahia eta benetan esaten dizuet, uste nuena baino konplikatua da herri aldizkari bat argitaratzea. Gaiak pentsatu beharra, publizitatea kontratatu, albisteak topatu, aldizkaria maketatu, azkenengo zuzenketak egin... Nork esan behar zuen 20 orrialdetako aldizkari honek guzti hori duela atzean? Nik ez behintzat. Hasi gaitezen bada hasieratik.

Astelehen arratsaldetan elkar-tzen da Aretxagazetako batzordea asteroko eginbeharrei aurre egiteko. Zer gai jorratu hurrengo alean? Hori izaten da hasiera baten burukomina. Atal bakoitzean zer landu, kiroletan, erreportaietan, elkarrizketan,... Gaiak pentsatzeko agenda eta egutegia beti kontutan izan behar, sasoiaren sasoiak atera ahal izateko.

Denbora baten barruan pentsatu dira gaiak, ondoren asteak eman dituen arazoak komentatzen dira.

## Aste eta erdi lana antolatzeko

Hortik aurrerakoa langilearen lana izango da. Iratxek aste eta erdiko denbora du batzordean pentsatu diren gai horiek lantzeko, elkarrizketak egin, argazkiak atera, berriak bilatu... Bi berbetan esanda: lana antolatzeko. Erraz esaten da. Eskerrak beti ere, kolaboratzaileen lana hor egoten dena. Mikel Arroia-bek naturaren inguruko gaiekin mimatzen du aldizkaria eta Mari Jose Aretxagak ere kontatzen dizkigu herriko kontuak. Beste aldizkako kolaboratzaileen lana ere ezin ahaztu. Eskerrak hauei.



Argazkiak izan ezik, informazio guztia disketean eramaten da inprentara

Batzordeko kideek ere izaten dituzte euren eginbeharrekoak, batzuk zuzenketaz arduratzen dira, diru kontuak egunean eraman eta dirulaguntzak eskatzeaz beste batzuk, publizitatea kobratzeaz, zuzendari lana egiteaz, e.a. Denendako izaten da lanik hemen, beti sortzen baita ezustekoren bat.

Gaiari lotuaz, astea aguro doa aurrera, komunikabidean aritzen direnek hori izaten dute eta oztopo nagusi, denboraren aurka lan egin behar izatea. Astea hara eta hona informazioa batzen, elkarrizketak egiten, argazkiak ateratzen, guztia txukun-txukun idazten, ordenadorean sartzen eta maketatzen pasatzen da, eta konturatu orduko heldu da astebukaera. Astebu-

kaerako orduak ere ez dira poliki pasatzen diren horietakoak, astelehen goiza ate joka heltzen baita.

Aleak aste horretan irtengo du eta 2 egun gelditzen dira bukatzeko. Astelehen arratsaldean, osteraren batzordea. Hurrengo alea nola doan begiratzen da, azken unean zortu diren arazoak konpondu, eta zuzentzaileak eginda dauden orriak zuzentzen hasten dira.

Asteartearen zoratze moduko eguna, aldizkaria inprentara eraman aurreko eguna baita. Eginbeharreko guztiak agendan ondo apuntatu eta ezin hutsik egin, arratsalderako dena eginda egon behar zuzentzailea azken orrialdeak zuzentzera pasatuko baita.

Asteazken goizean Aretxagazetak inprentan egon behar izaten du. Diskete batean grabatzen da ale osoa eta Eguzkigrafin inprimategira eramaten. Bertan Felis Beltranek argazki guztiak eskaneatu eta aleari azken ikututxoak emango dizkio. Hau egin ondoren, orrialde bakoitzaren negatiboa ateratzen da, fotolitoa esaten zaiona. Gero muntaia egiten da eta hau tailerreko makinek paper bihurtuko dute. Ostegun arratsalderako 2.500 ale inguru ateratzen da.

---

**“Astea, hara eta hona informazioa batzen, elkarrizketak egiten, argazkiak ateratzen eta guztia txukun-txukun idatzi ostean, hau maketatzen pasatzen da”**

## Banaketa lana, garrantzitsua

Baina hemen ez da dena bukatzen. Aldizkaria herritarrengana heltzea beste prozesu guztia besteko garrantzitsua da.

Banaketa lana eguen arratsalde eta eguakotx goiza bitartean egiten da. Aleak heltzen direnean, pegatinak ipini eta kaleka eta zenbakika sailkatzeko lanari ekingo zaio. Dena gertu dagoenean, bazkideei beren


buzoian utziko zaie aldizkaria eta honez gain eguakotx goizetan publizitatea egiten duten dendetan utziko da. Baina Aretxagazeta, herrian banatzeaz gain, auzoetan ere banatzen da eta baita kanpoko herrietan ere. 100 bat ale bialtzen dira korreoz. Hauetatik batzuk auzoetara, komunikabideetara beste batzuk eta baita Aretxabaletatik kanpo bizi direnei ere. Euskal Herri osora

zabaltzeaz gain, Espainiara eta munduko leku desberdinetara ere banatzen da. Begiratu bestela beheko mapan.


Banaketarekin heldu gara prozesu honen bukaerara, ez ostera Aretxagazetaren amaierara. Hurrengo alea gertatzen hasi beharko dagoeneko.

Atxabaltar bat.

# Nora heltzen da Aretxagazeta?



Itsaso Barberok egiten ditu Aretxagazetako banaketa lanak



KANARIAR IRIAK

# Zer esaten dute?



## Txikiaren historia txikia

Beinketik sortu zen hamabostekari hau bultzatzeko ideia. Hor ibili ginen gero Udaltxean, konbentzitu ezinean.

Aretxagazeta bedeinkatu hau sortu zen gauean gaupasa egin genuen ordenadorean: esperientzia gutxi eta atara beharra.

Han ibili ginen, **Agurtzane Elkoro**, bi **Antxia**, bi **Jon**, **Josu Lazkano** eta ni neu. Ordenadore lento akaberabako bat, **Matxin** izenekoa. Badakizue herri honetako **Udalak** miloiak zementotan gastetan ditu, baina kulturaren... beti ogi-apurrak. 60. hamarkadako desarrollismoarekin ez goazela inora, demontre!

Tamaina txikitxo zeukan aldizkariak. Gauza onak beti dira txikiak. Ingurukoek barre egiten ziguten, ez ginelako **Arrasate Press**-en tamaina estandarrean iristen. Konplexuak, beti besteen bardina izan beharra. Hainbat asaltori eutsi genion, tamaina orijinala mantentzeko.



## Diferentzia ederra

Lehenengo Aretxagazeta ilusio haundiarekin baina materiale barik jaio zen: ez ordenagailurik, ez kamararik, ez liberaturik, ezer ez; herriari berri eman eta euskararen erabilera bultzatzeko zerbait egin gura bakarrik genuen. Andarto kolektiboa izendatu

genuen geure burua, eta kazetaritzako ikasleak nahiz afizionatuak ginen beste batzuk geunden bertan.

Aretxagazeta, tamaina haundikoa, hiruhilabetero kaleratzen zen. Komertzioek jarritako publizitate urriarekin ezin baliatu eta gainontzekoa Udaletxeak ematen zuen. Eskerrak garai hartan Kulturako zinegotzia zen Txomin Landaluzek, bigarren alea inoiz kalera aterako zen esperantza gutxi zuenak, honen aldeko dirulaguntzatik apostu egin zuela; nahiz eta garesti atera broma.

Gogoan dut nola ibiltzen ginen Inma eta biok artikulua jarritako eperako lortu guran, baina inoiz etzen egunean ateratzen. Ale bakoitza amaitzean hurrengo hasteko gogo barik geratzen ginen; hala eta guztiz bi urte iraun genuen.

**FELIS BELTRAN DE HEREDIA**  
Aretxagazetako sortzaileetarikoa bat

Tamaina txikian mamiak dauka garrantzia eta horretan ibili ziren **Ana Eriz**, **Goretti Aiastui**, **Itxaro Zubillaga** eta **Alberto Garro**. Azkenean, tamaina txikiaren bataila irabazi egin ziguten. Neurri "estandarra" (ze berba zatarra) hartu zuen Aretxagazetak. Eskerrak mamiak bere hartan jarraitu zuela.

Nik beti pentsatu dut Aretxagazeta epeltxo dela. Herriko gauza inportanteetan edo gaxetan ez da sartzen. Saiatzen nintzen ni han eta hemen izenak eta ziriak sartzen. Baina kazetari eskasa naiz. Beste gauza eskas bat: azala. Erdipurdiko argazkiak, indar bakoak, aurpegi bakoak. Behin **Jose Luis Txintxurretarekin** egin zuten azal on bat. Beste kontu bat. Herriko kazetariak megalomanoak dira. Aretxagazetan lana egitea edo kolaboratzeari gutxitxo eritzen diote, nonbait. Leku handiagoetan lana egitea da euren ametsa. Haizea buruan... Proiektu txikiak direla beti politenak! Leku handietan beti azkeneko monoa zara. Proiektu txiki eta inportanteak maite dituenak hor dauka beste desafio bat: **Aretxabaleta Telebisinoa**, aldizkariaren arreba.

**J.J. ARETXAGA**


## Ezina ekinez egina

Hala dio behintzat esaera zaharrak, baina herri-aldizkari guztiek ez dute, zoritxarrez, ekin eta 100. alera iristeko aukerarik. Horrexegatik gaur, numero borobila aitzakiatzat hartuta, **ZORIONAK!**

Ume zinela esku artean hartu eta mimoz irakurri zintugunok harro gaude gaur heldutasunera bidean eman duzun urratsagatik. (Ez dut ukatuko, hala ere, tarteka zurekin hasarratzen ez garenik, filologook behinik behin zorrotz(egi)ak izateko joera daukagu-eta, baina, hori bai, beti hobe beharrez). Kontuak kontu, zu baino lehenago zahartuko al gara besteok!

Inoiz ez dizut aitortu, baina hamabostean behin astearteko bazkaria atxabaltarragoa izaten da gurean, orduan iristen zara-eta Donostiara, eta atartean fin-fin egoten nire zain elkarrekin bazkaldu eta herriko kontu zaharren berri emateko. Zu bai inoiz hutsegiten ez didazun lagun zintzo eta leiala. Nik zuengana joaterik izan ez eta zu zeu etortzen zara atxabaltartasuna gal ez dezadan. Horregatik ere nire eskerrik beroenak eta, bide batez, asteartero etorriko bazina?

**MIRIAM URKIA**  
**UZEI** (Lexikografia saileko arduraduna)



## Ehun lore

Ehun ale. Baliteke norbaitek uste izatea ez dela beste munduko gauza, baina niri marka izugarria iruditzen zait. Ehun bider atzoko eta gaurko kontuekin bueltaka, eta beti zerbait berria eskainiz. Ez da ez lan erraza; are gehiago irakurleak

aspertzeko motiborik eman barik egitea.

Ez da gutxi, beraz, lortutakoa. Herri komunikazioa ehun urrats txiki besterik ez dira, pauso sendo bat, ordea. Eta pausoz pauso, sendoak direnean, helburuak lortzen dira.

Orain aurrera egiteko unea iritsi da. Zalantzak eta beldurrak, seguru, iraganeko kontuak izango dira jada, eta ehun alek ematen duten esperientzia aprobetxatu behar da. Erreportaiak landuagoak izango dira; elkarriketak interesanteagoak; kontu zaharrak zaharragoak eta berriagoak aldi berean; eta berriak berri-berriak.

Hori guztia iritsiko da. Bitartean, hala ere, merezi du une batez atzera begiratzea. Ehun dira, ehun ale banan banan eginak. Ehun lore Loramendiren herrian, baten batek hazia bota zuelako eta beste batzuek lorezaintzan trebeak direla erakutsi dutelako. Eskerrik asko.

**FELIX IRIARTE**

Euskaldunon Egunkariako kazetaria



## Ehun ale, ehun!

### Zorionak

Aldizkari baten ehungarren alea kalean ikusteak, benetako poza sortarazten duela zalantzarik ez dago. Eta aldizkari hori, gure hizkuntza, eta kultura berreskuratu eta mantentzeaz arduratzen bada, poz hori neurrigabekoa gertatzen da.

Tamalez, herritik kanpora bizi garenontzat, arrazoi desberdinegatik Aretxabaleta utzi dugunontzat, Aretxagazeta esku artean hartzea, lagun baten bisita edo eskutitza hartzea bezalakoa da.

Bertako gaiei buruzko iritziak ematen dituzten pertsonaiak ezagutzeak, herrian martxan jartzen diren inizatiba berrien informazioa jasotzeak, jaien eta hauen inguruan sortzen den giroaren berri izateak, eta batez ere gauza horiek guztiak euskaraz irakurri ahal izateak, herritik hurbilago sentiarazten gaituzte.

Gainera, denbora joan ahala Aretxagazetak ere aurrera egin du berrikuntzak sartuz, eta nahiko informazio zabala eskainiz, hori guztia, hasiera hasieratik aldizkariaren betebeharra ulertu duten pertsona batzuen lanari esker.

Zorionak eta aurrera! oraingoan 200. alea kaleratzera. Ordurako Aretxabaletan egotea espero dut.


**ISIDRO SERRANO**

El Adelanto aldizkariako kazetaria (Salamanca)

Aretxagazeta  
100. alea

Zorionak


... eta segi  
aurrera!



**EGUZKIGRAF, KOOP. ELK.**

INDUSTRIALDEA F-0-4 ★ ARETXABALETA ★ TFNOA.: 943 - 79 18 44 • FAXA: 79 29 41






# Bizikletaz ibilbideak

## 2. ibilbidea:

### Asentzio-Kurtzeta



• **Denbora:** 2 ordu-2 ordu eta erdi bitartean.

• **Etaparen deskribapena:** Etapa honen zatirik haundiena lurrezko pistatan zehar egiten da; hala ere hasierako zatian (Apotzara iritsi arte) errepide asfaltatua dago.

Gogortasun eta teknika aldetik ez du inongo arazorik bidea eroso da eta. Aipatzekotan, Apotzatik Asentziara arteko bidean, aldapa gogorren bat aurkituko dugu.

Eguraldi ona izanez gero bidea oso polita da eta paisaia zoragarriak ikusteko aukera ere izango dugu (Asentziarako bidetik Leintz Bailarako ikuspegia edo Kurtzetatik Orixol eta Anboto aldekoa). Itzulera bide beretik egingo da.

• **Ura:** Ura aurkitzeko ez dago inongo arazorik. Apotzan, San Adrianeko ermitan eta Kurtzetan badaude iturriak.

• **Katalogazioa:** \* (Erraza).

## ETAPAREN DESKRIBAPENA

- Eskoriatzako sarreran eskumatara Apotzara doan errepidea hartuko dugu. Aldapa gora hasten da.
- APOTZA, bidegurutzean ezkerretara doan bidea hartzen dugu baserri batzuren artean.
- Beste bidegurutze batetan, zuzen goruntz doan bidea hartzen dugu baserriak atzean utziz.
- Ezkerretara dagoen bidea (baserrira doana) utzi eta zuzen jarraitzen dugu.
- Aurrera jarraitu, eskumatik gora doan bidea utzita.
- Pinudira sartzean, bide mordoxka bat iritetzen diren leku batean agertzen gara. Beste danak utzita, aurrera doana hartzen dugu.
- Ama Birgina irudia eta erromara bat pasatuz, pinu artean iritetzen gara egoera txarrean dagoen bide batetara. Hemendik jarraituz, goian ezkerretara jotzen dugu.
- Eskubitara goruntz doan bidea hartzen dugu (jadanik gutxi gelditzen da).
- Gaina hartu ondoren, bidegurutzera iristen gara.

Ezkerretara hartuko dugu San Adrian eta Kurtzetara joateko.

- Lautada bat pasatu ondoren berriz aldapa gora hartzen dugu pista nagusitik.
- Eskumatara, beheruntz doan bidea hartuta San Adrianeko ermitara iristen gara. Hemen behekaldean iturria dago. Kurtzetara joateko, bidea aurrera jarraituko dugu.
- Hemendik aurrera, beti bide nagusia jarraitu.
- Bukaeran aldapa bat jeitsi eta Kurtzetara iristen gara.
- KURTZETAKO BEHATOKIA, itzulera etorri garen bide beretik egingo dugu Apotzaraino.
- APOTZA, eleizaren eskubitik hilerriraino joango gara. Hemen, eskubitik aurrera jarraitu.
- Eskubitara jarraitzen dugu. Hemendik aurrera pistaren egoera ez da batere eroso.
- APOTZA-ETXEBARRI auzoa. Errepidera irten eta eskubitara joko dugu aldapan behera ARETXABALETARAINO.

BEIRALAN



**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

**DOIKALSE**

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44



**AITZIBER**  
Umeak

Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

**Martín**

RELOJERIA • BIFIXITEGIA

'Bere bezeroen zerbitzuan  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72



# Futbolak eman ditu bereak



Juanjo Etxebarriaren mutilak fin aritu dira aurtengo denboraldian. Jubenil mailako Ohorezko ligan lehenengo postuan bukatu dute eta Euskal Ligara igo. Datorren urtean bai Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeen aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Azken bi urteotan mailaz igotzea lortu dute Etxebarriaren mutilek. Iaz 2. gelditu eta promozioa jokatu behar izan zuten. Aurten zuzenean igo dute Euskal Ligara. Baina iaz ez moduan zortea lagun izan dute aurten, izan ere, ligan lehen eta azken partiduan bakarrik egon dira lehen postuan, beste denboraldi guztian 2. postuan mantendu dira.




Preferente mailako UDak denboraldi ona egin duela esan behar da, klasi-fikazioan aurreneko postuetan ibili baita denboraldi guztian zehar.

Taldeko pitxitxia **Joseba Arana** izan da. Datorren urtera begira Vittor Mujikak jarraituko du entrenatzaile lanetan. Baina taldean aldaketa batzuk izango dira, izan ere, Alberto Garrok eta Jon Arriolak utzi egingo baitute futbola.



Aurten emaitza onak lortu dituzte UDako taldeek. Roberto Alkaldek entrenatzen duen taldeak lehenengo bukatu du klasi-fikazioan eta mailaz igo, bigarren mailako jubeniletik lehen mailako jubeniletara hain zuzen ere. Joan den astebukaeran lehenengo klasifikatutako bi taldeek partidua jokatu zuten Zumarragan eta atxabaltarrek 3-1 galdu zuten prorrogan beraundarren aurka.

Aurtengo pitxitxia **Illart Azkarate** arrasatearra izan da.



## ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia  
ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

## OSKAR GARAJEA


Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

## PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA

11 urte UDAko lehen ekipoan jokatzen eman ditu Jon Arriolak. 17 urtekin hasi zen UDAn jokatzen eta beti defentsa lanetan aritu da. Aurten ostera, futbola uztea erabaki du. "Urte askotxo dira eta denboraldi bukaerarako nekatuta bukatzen nuen" aitortu digu. Hala ta be, UDAko partiduetara joaten jarraituko du, ez jokatzerara baina bai ikustera.



11 urtez jarraian ibili da Jon Arriola UDAko preferentean

• Urte asko eman dituzu UDAko preferente taldean. Zer dela eta utziko duzu futbola?

Urte asko dira. Lehen ilusio gehiago izaten nuen. Orain urte amaiera heldu orduko nekatuta bukatzen dut eta denbora asko kentzen du futbolak. Futbola uzten badut ere kirola egiten jarraituko dut baina orain moduko serio ez, konpromezu barik.

• Zelan gogoratzen dituzu 11 urte hauek?

Preferente mailara igo nintzenezan neu nintzen taldetik gazteenetarikoa, besteak zaharragoak ziren. Gero beste gazte batzuk ere igo ziren. Lehen-

go kategoriak gogorra- goak zirela uste dut. Bi urtetan 3. dibisioan ere jokatu dut, beste guztiak preferente mailan.

• Zer esango zenuke 3. dibisioan jokatutako bi urte haietaz?

3. dibisioan jokalaria batzuen kalitatea igartzen zen. Preferentean, orain momentuan behintzat ez da figurarik nabarmentzen. Gainera Bizkaian ere jolasten genuen eta bertako taldeak ezagutzeko aukera bat zen hori.

• Penaz utziko duzu futbola?

Alde batetik bai, baina

ondo pentsatutako erabakia izan da. Utzi eta gero damutuko ete naizen pentsatzeak ematen dit bildurra. Hala ta be, beste kirol batzuk egiten jarraituko dut eta ez dut uste damutzeko arrazoirik izango dudarik.

• Zerk emango dizu pena haundiena?

Taldean egoten den giroak. Oso giro ona sortzen da gure artean eta horretxek emango dit pena haundiena. Hala ta be, ez dut uste taldekoekin erlazioa guztiz galduko dudarik.

• Lesiorik izan duzu

futboleant?

Bai, lesio gutxi izan ditut baina horietako bat gogorra izan zen. Besoko bi hezurak apurtu nituen, Radio eta Kubito eta ukondoan luxazioa izan nuen. Horrez gain ez dut beste lesiorik izan.

• Zenbat gol sartu dituzu urte guzti hoietan?

11 urtetan, ligan gol bakarra sartu dut eta aurrendenboraldian 2. Neure atean ere sartu ditut gol banaka batzuk.

• Eta tarjeta aldetik zelan ibili zara?

Tarjeta aldetik ondo ibili naiz. Urtean 10 bat txartel hori izaten nituen gutxigorabehera. Futbol zelaian umorea aldatzen zait. Nerbioso jartzen naiz eta umore txarra izaten dut.

• Zein da 11 urte hauetatik gogoratzen duzun momentu polit bat?

Momentu politik asko daude baina orain gogoan dudana 3. mailara igo gineneko eguna da. Partidua bukatu ostean, Caberon kamioian udaletxera jeitsi ginen jokalaria guztiok. Bidean txanpana ateratzen ziguten tabernetatik. Udaletxeko balkoira igo ginen eta ondoren luntxa izan genuen eta gauean juerga.

## EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak... Enpresendako promozio bideoak. Eskola eta Elkartendako promozioak eta ekintza bereziak. Etxeetan grabatutako bideoen muntaiak. Otorala 15 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 78 37

## TXIMAK

ileapaindegi mistoa



Herriko Plaza, 5 - behea  
Tfnoa: 79 83 64  
ARETXABALETA

## MIKELOS

Moda  
Guztia Zuretzat


Iparagirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETA

## BASABE

Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84  
ARETXABALETA



## **Bedoña 1966-1996**

Askok ez dakite eta beste asko ez dira gogoratuko, baina hogeita hamar urte igaro dira Bedoñako auzo atxabaltarra Arrasatera anexionatu zenetik. 700 urtetako historia apurtu zuten 66an. 1260. urtetik aurrera Arrasate Leintz Bailaratik kanpo gelditu zen eta Bedoña, beste elizate eta herriekin batera Bailaran. 1631.

urtean Aretxabaleta eta Eskoriatza banandu zirenean, Bedoña Aretxabaletako elizate bezala gelditu zen.

Urteak joan eta urteak etorri, auzoa haundituz doa. 1866. urteko erroldan 22 baserri eta 128 biztanle agertzen dira. 100 urte beranduago, desanexio urtean 17 baserri (Sologistoa, Errastikua, Elizabide, Uribarren, Bidasoro, Garaikoa, Artia, Artasia, Andramari Zuri, Malbe, Urkimendi, Urin, Iturriaga, Etxabarri, Mendiburu, Zabale eta Elorriaga) gelditzen dira eta bertan 121 biztanle.

Eta zer dela eta herri aldaketa? Badakigu aspaldidanik bedoñarrek bide gogoa zutela, baina garaiko Udaletxean ez zuten sosik eskaera horri aurre egiteko, eta beste interes partikular batzu ere medio zirelarik, deserosotasuna aurkaketa bihurtu zen.

Batzuk Arrasaterako joera zuten eta beste batzuk berriz, Aretxabaletarako. Nola konpondu? Erreferenduma eginaz. Arrasaterako joerakoek "irabazi" zuten, baina berehala agertu ziren kexak udaletxean, engainatuak izan zirela, ez zekitela ondorioa, etab... tranpa usaia nonbait (gogoratu, general txiki eterno hura oraindik bizi zela, eta horrelako bizioak beti pegatzen ziren/dira).

Dena den erreferendumeko emaitzak balio izan zuen, eta 1966. eko martxoaren 3an hartutako erabakia, Gobernazio Ministeritzaren 592/1966 Dekretuaren bidez eman zen, eta martxoaren 14an argitaratu zen Estatuko Buletinean.

Handik aurrera, bertako 2,6 Km<sup>2</sup>-tan zeuden 17 baserrietan bizi ziren 121 gizon-emakumeak, nahiz eta atxabaltarrak izan, mondrauetaratu egin zituzten, Leintz Bailaratik at. Aretxabaletako Udalak zerga bidez galtzen zuen diru kopurua, jadanik desagertutako Mugarritta pareko zabor-erreketa labeen zorrarekin parra egin zuen.

Gaur egun, hogeita hamar urte beranduago, Magalbe (Malbe) baserria desagertu eta beste zazpi baserri berri agertu dira (Erlamendi Borda, Urialde, Aranalde, Goikosolo, Arteditxo, Etxegarai eta Iturralde).

Damurik bai/ez?



*Bedoña auzoa 1966. urtean anexionatu zen Arrasatera*

**AITOR ANTIXIA LETURIA**

# 100.ena musikaz



M.J. Aretxaga

Gaur hona etorri eta idaztea ez da bestetan modukoa. Edozeini ez zaio tokatzen aldizkari bateko 100. alean idaztea eta gainera musika eta guzti.

Musika eskolatik atera eta kultur etxera ekarri dituzte **rock taldekoak**. Han traba egiten zutela, eta hemen itxura denez ez. Eta ez pentsa gutxi entzuten denik... beno nik ez dut hemen egunero egon behar baina... hemen lana egiten dutenek makina bat entsaio entzun beharko dituzte. Ekarki dituen lasai egoten bada... berak ikusiko du.

Baina gaurkoa berezia da benetan. Ikusiko zenuten aldizkariaren portada ere ez dela beti modukoa. Herriko artista batek marraztu eta diseinatutakoa da, **Mikel Arroiabe** da bera. Aretxagazetako maskota da erdian duzuen eta

aldamenetan dauden letrak orain artean asko idatzi denaren adierazgarri dira, horrela esan dit behintzat.

Artistatik artistara gabiltza herri honetan. Baina batzuk izenetan ez dira oso trebeak eta aurrekoan izena aldatu zioten herriko artista den bati. **Iñaki Garmendia** da berau eta ez Mikel Garmendia. Inor ez da libratzen hanka sartzeak egitetik. Artista eta aktoreekin izan zen hanka sartzea nonbait, Goenkale ikusten edo...

Aurrekoan telebistan ikusteko aukera izan genuen gainera **Iñaki Garmendia**. Ez zen bakarrik joan, **Miren Iriondok** lagundu zion. Andoni Aizpuruaren Bertatik Bertara programan iixildu ere egin barik aritu ziren biak berrikeretan. Loramendi Elkarteak atera dituen fruitu eta barazkien kartelen inguruan berba egitera joan ziren baina azkenean beste gauza pilo batetaz berba egiten bukatu zuten.

Batzuk marrazten eta beste batzuk saski-baloian dira artista. Eskoriatzako jubencil A taldean jokatzeko duen **Leire Uriberi** jokalaria onenaren kopa eman diote eta baita jubencil B taldean jokatzeko duen **Olaia Agirrezabalagari** ere. Zorionak bie!

**100. alea!** ez nuen uste sekula iritsiko ginenik. Gaur nire anaia **J.J.**kin afari eder bat egingo dut.

## A R E T X A Z O K A

### LANA

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta etxeko lanak egin. Tfnoa: 77 02 13
- Idazkaritzan diplomatuak lanak ordenagailuz pasatuko nituzke. Tfnoa: 79 31 47.
- Euskeraz, ingelesez, gaztelera eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

### ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17
- Pisu bat salgai dago. 83 m<sup>2</sup> ditu eta jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefonoa: 79 45 31.
- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

- Garaje bat salgai dago Murubide kaleko 15. zenbakian. Telefonoa: 77 00 97.

- Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke. Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

- Pisu bat salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa: 79 64 93. (Egurdian eta arratsaldean).

- Laredon uztailean apartamentu bat alokagai dago. Telefonoa: 79 52 80.

- Laredon pisua alokagai dago. Tfnoa: 79 31 47.

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilan pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- 82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



## Puri Beltran de Heredia

"Kontu zaharrak gustatzen zaizkit  
gehien Aretxagazetatik"

1979. urteaz geroztik Eguzkigraf enpresan lan egiten du Purik. Enpresako kontabilitatea eramaten du eta gustoko lana duela aitortzen digu. Lehenengo Ederlanen ibili zen lanean eta han ere antzeko lana egiten zuen.


- **Erreza da enpresa bateko kontabilitatea eramatea?**  
*Behin ikasita gero erraza da baina lehenago asko ikasi behar da.*
- **Inprenta munduan lan egiten duzuetik asko garatu du arlo hori?**  
*Bai asko. Inprentak garapen haundia izan du azken urteotan. Lehen letrak banaka-banaka egiten ziren. Orain, Offset sistemaren bidez, fotolitoz, plantxekin eta ordenadoreekin lan egiten da.*
- **Armozatu zer?**  
*Kafesnea zerealekin.*
- **Koloniarik bai?**  
*Bai, baina asko ez. Larregi botatzea ez da ona izaten.*
- **Abeslari gustoko bat?**  
*Luis Mariano.*
- **Eta musika mota bat?**  
*Saltsa asko gustatzen zait.*
- **Zer iritzi duzu intsumisioaren inguruan?**  
*Niri ondo iruditzen zait intsumiso egitea. Soldaduzkara joatea denbora galtzea dela uste dut.*
- **Pertsona batengan zer baloratzen duzu?**  
*Zintzoa izatea, konfidantzakoa. Esaten duena egiten dakiena.*
- **Afalostean zer egiteko asmoa duzu?**  
*Etxeko lanen batzuk edo telebista ikusi eta eguraldi ona baldin badago paseotxo bat.*
- **Denbora librean zer egiten duzu?**  
*Pasiatu baina ez daukat denbora libre asko.*
- **Bizitzako egunik politena?**  
*Umeak jaio zireneko eguna.*
- **Non ezagutu zenuen gizona?**  
*Atxabaltako plazan.*
- **Aretxagazeta irakurtzen duzu?**  
*Bai, gustora irakurtzen dut.*
- **Zer gustatzen zaizu gehien?**  
*Kontu zaharrak asko eta M.J. Aretxaga ere gustatzen zait.*
- **Zer dauka polita udaberriak?**  
*Berdetasuna, lorak, e.a.*
- **Zapatak takoidunak ala takoibakoak?**  
*Takoidunak, takoi haundiagoak ala txikiagoak baina apur batekin bai.*
- **Gustoko aktore bat?**  
*Paul Newman.*



## Irakurtzeko liburuak

Hemendik aurrera atal honetan irakurtzeko liburu desberdinak gomendatuko ditugu. Hamabostean behin Joseba Lopez de Armentiak liburu baten inguruko komentarioa egingo du.

Liburuak interesgarria irudituz gero badakizue liburutegira joatea besterik ez duzuela, bertan aurkituko duzue eta.



*Titulua:* Hego itsasoetako hiru istorio  
*Idazlea:* Jack London  
*Argitaletxea:* Elkar, 1995  
*Saila:* Branka, 42

Jack London abenturazko nobela egile ospetsuaren hiru ipuin jasotzen dira liburu honetan. Pazifikoko uharteetan kokatzen dira ipuin hauek eta gizon zuri zibilizatazaileraren eta kolonizatu gabeko "basatien" arteko borroken erakusgarri dira. Basatien artean zuriak direla basatienak ateratzen du irakurleak ondoriotzat. Ipuin gordinak dira, baina umorezko ikutu bat ere badute. 16 urtetik gorako gazteentzat eta helduentzat ere oso gomendagarria da liburu hau.

Joseba Lopez de Armentia

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

**Dorleta**  
**Taberna**

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
Aretxabaleta

**KIXKOR**  
**TABERNA**

Mitarte 13 ☒ 79 20 60  
Aretxabaleta

**BERGARA**



**Ekainak 14-23**

**ERAKUSKETA**

Pol-Pol argazki taldearen "Bergara hiria" sariko argazkien erakusketa. Kultur etxean.

**OÑATI**



**Ekainak 11**

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**

Kultur etxeko areto nagusian diapositiba emanaldia: **SOL Y BRUMA MALI** Aloña mendi taldeak antolatuta. Arratsaldeko 7,30etan.

**Ekainak 17tik 21era**

**JUBILATUEN ASTEA**

Hitzaldi desberdinak, kontzertuak, e.a.

**Ekainak 6tik 9ra**

**KORPUS JAIK 96**

Beste ekintzen artean, ekainaren 8an Txopekua tiro zelaian lurralde mailako **PLATER TIRAKETA**, goizeko 10etan. Eguerdiko 12,30etan San Martin egoitzaren inaugurazioa. Gaueko 10,30etan **GOLDEN APPLE QUARTET** taldea Santa Ana Antzokian eta ordu berean **HATOR** taldearekin erromeria herriko plazan.

**ARRASATE**



**Ekainak 12**

**HITZALDIA**

"**EKOLOGIA, HURBILTZE BAT**", Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan arratsaldeko 5etan.

**Ekainak 13 eguna**

**ZINEA**

"**CLERKS**" filmea Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

**Ekainak 15 zapatua**

**ANTZERKIA**

**TANTTAKA**ren "**UMEKERIAK**" antzezlan. Amaia Antzokian gaueko 10,30etan.

**Ekainak 16 domeka**

**"AIRE ZABALEKO PINTURA"**

Informazioa: Famili eta gizarte Heziketarako zentruan 79 04 59.

**Ekainak 20 eguna**

**ZINEA**

"**LOS JUNCOS SALVAJES**" Amaia Antzokian gaueko 9,30etan.

**Ekainak 22 zapatua**

**INTSUMISO EGUNA**

Egun osoan zehar ekintza desberdinak egongo dira.

**ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.**

**"ARINSA"**

Basabe Poligonoa "EO-10"  
Tfnoa: 79 62 80  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi,1  
☎ 79 71 69

**MEMESA S.L.**

**Industriaren alde**

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

**ZARAIA TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**



**MENDIOLA ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

**Astelenetan itxita**  
Tfnoa: 71 43 45  
**ESKORIATZA**



## Udako kirol iharduerak

Uztailean zehar kirol desberdinak egiteko aukera egongo da aurten ere. Udaletxeko kultura batzordeak, **tenisa, piraguismoa, espeleologia** eta eskalada antolatu ditu.

Bi txandetan egingo dira iharduera guztiak, lehena, uztailaren 1etik 12ra eta bigarrena uztailaren 15etik 26ra. Izena emateko epea zabalik dago eta kultur etxean egin daiteke. Edozein argibidetarako deitu 79 01 05 telefonora. Apuntatzeko epea kirol bakoi-tzerako dauden plaza kopurua betetakoan bukatuko da.



*Aurten piraguismoa, tenisa, espeleologia eta eskalada egin ahal izango dira uztailean zehar*



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

### Ekainak 8 zapatua

#### IBAIALDE PROIEKTUA

**Zaraia Mendi Taldeak** Deba ibaia aztertuko du hasi Gatzagatik eta Eskoriatzara bitartean. Irteera ordua goizeko 8,30etan Zaraia kaletik.

### Ekainak 9 domeka

#### LEIXARGARATEKO ATERPETXEAREN EGUNA

**UDAko 50. urteurrena** dela eta Leixargarateko aterpetxearen eguna ospatuko da. Goizeko 8,30etan izango da irteera ordua partenoitik. Luntxa izango da bertan. **Zaraia eta Murruxiko mendi taldeen** eskutik.

#### ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Otxandixo-Dima-Amorebieta-Durango-Kanpazar-Arrasate-Aretxabaleta.

### Ekainak 10 astelehena

#### ALCOHOLICOS ANONIMOS TALDEAK ANTOLATUTA HITZALDI PUBLIKOA

Arratsaldeko 7retan ekingo da udaletxeko ganbaran norbere esperientzia kontatzeko hitzaldi irekia edo publikoa egongo da.



Orain 61 urte, 1935. urteko ekainaren 10ean hain zuzen ere sortu zen Alcoholicos Anónimos taldea mundu mailan. Gure herrian 1990. urtean eratu zen taldea. Data hori gogoratuz antolatu dute hitzaldi irekia.

A.A. taldearekin harremanetan jarri gura izan ezkerro Gipuzkoa mailako ofizina zentrala Irunen dago eta telefonoa 61 93 38 da.

### Ekainak 15 zapatua

#### SAN BERNABE ERMITAREN INAUGURAZIO EKITALDIA

Eguerdiko 12,30etan **San Bernabe** Apotzako ermita berriua inauguratuko da.

#### MURRUKIXO MENDI TALDEAK URKIOLARA IRTEERA

### Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murruxiko M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

### Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

### Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
**ARETXABALETAKO**

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# Laster zuekin!

# Sofa leku



a. eme. interiores, Garibai, 9  
centro hogar muebles, Zigarrola, I  
sofa-leku, Zigarrola, I  
Tfnoak: 79 15 03 - 77 14 92

**grupo**  
  
**Amuebladora  
Mondragonesa**